Urteko kontuak Sozietatearen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira eta indarreko merkataritza-legeriaren eta Kontabilitateari buruzko Plan Orokorrak, 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, eta bere garapen-arauek xedatutako arauen arabera aurkezten dira. Helburua ekitaldian zehar Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi leiala, baita esku-dirutan izandako fluxuena ere eskaintzea da.

Adierazitako urteko kontuak Administrazioa Kontseiluak formulatu ditu 2019ko martxoaren 13an eta Akziodunen Batzar Nagusiak onartu behar ditu. Hala ere, ez da aldaketa esanguratsurik espero berrespen-prozesuan. Bestalde, 2017ko ekitaldiko urteko kontuak Akziodunen Batzar Nagusiak onartu zituen 2018ko maiatzaren 9ko ohiko bileran.

Kontrol finantzariorako bere bazkideen erakundeek eskatzen duten moduan irudi leiala eskaintzeko, bazkide horiek transferitutako dirulaguntzen kontabilitate-erregistroari buruz dirulaguntzen 18. EBAren interpretazio zehatzari dagokionez, Sozietateak bazkideetatik jasotako ekarpenak galeren eta irabazien kontuan dirusarrera bezala erregistratzen ditu, sozietatearen helburua betetzeko jarduera bereziak finantzatzera bideratuak daudelakoan, gaur egun ezagutzen direnekiko parametro desberdinetan oinarrituta, etorkizunean eman daitekeen arauaren beste edozein interpretazio alde batera utzi gabe.

### 2.2 Nahitaezkoak ez izan arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak

Ez da aplikatu nahitaezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

## Nota 2.- Bases de presentación de las cuentas anuales

### 2.1 Imagen fiel

Las cuentas anuales se han preparado a partir de los registros contables de la Sociedad y se presentan de acuerdo con la legislación mercantil vigente y con las normas establecidas en el Plan General de Contabilidad aprobado mediante Real Decreto 1514/2007 y Normas de desarrollo, con objeto de mostrar la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Sociedad y de los flujos de efectivo habidos durante el correspondiente ejercicio.

Dichas cuentas anuales que han sido formuladas por el Consejo de Administración con fecha 13 de marzo de 2019, se encuentran pendientes de aprobación por parte de la Junta General de Accionistas, no esperándose que se produzcan modificaciones significativas en el proceso de ratificación. Por su parte, las cuentas anuales del ejercicio 2017 fueron aprobadas por la Junta General de Accionistas en su reunión ordinaria del 9 de mayo de 2018.

Con el objeto de mostrar la imagen fiel requerida por los organismos de control financiero de sus socios y al respecto de la interpretación concreta de la NRV 18ª de subvenciones relativa al registro contable de las subvenciones transferidas por sus socios, la Sociedad registra las aportaciones recibidas de sus socios como ingreso en la cuenta de pérdidas y ganancias por entender que van destinadas a la financiación de la actividad específica en la que se concreta su objeto social, sin perjuicio de cualquier otra interpretación de la norma que pudiera darse en un futuro sobre la base de parámetros diferentes a los conocidos en el momento actual.

### 2.2 Principios contables no obligatorios aplicados

No se han aplicado principios contables no obligatorios. No existe ningún principio contable que siendo obligatorio, haya dejado de aplicarse.

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 13787515 C



2.3 Zalantzaren balorazioaren eta kalkuluaren alderdi kritikoak

Urteko kontuak prestatzeko, Sozietateak etorkizunari begira hainbat estimazio eta iritzi erabili behar du. Horiek etengabe ebaluatzen dira eta esperientzia historikoetan nahiz beste faktore batzuetan oinarritzen dira, etorkizuneko gertaeren itxaropenak barne, egoera kontuan hartuta arrazoizkoa direla uste bada.

Funtsean, estimazio horiek aktibo materialen eta ukiezinen bizi erabilgarriari dagozkio (4.1. eta 4.2. oharra), baita kontingentzien balorazioari ere (11. oharra).

Nahiz eta estimazio horiek 2018. ekitaldia itxitakoan informazio eskuragarri onenean oinarrituta egin, baliteke etorkizuneko gertaerek hurrengo ekitaldietan aldaraztera (gorantz edo beherantz) behartzea. Bidezkoa izanez gero, gero egingo litzateke.

2.3 Aspectos críticos de la valoración y estimación de la incertidumbre

La preparación de las cuentas anuales exige el uso por parte de la Sociedad de ciertas estimaciones y juicios en relación con el futuro que se evalúan continuamente y se basan en la experiencia histórica y otros factores, incluidas las expectativas de sucesos futuros que se creen razonables bajo las circunstancias.

Básicamente estas estimaciones se refieren a la vida útil de los activos materiales e intangibles (Nota 4.1 y 4.2), así como a la valoración de las contingencias (Nota 11).

A pesar de que estas estimaciones se han realizado sobre la base de la mejor información disponible al cierre del ejercicio 2018, es posible que acontecimientos que puedan tener lugar en el futuro obliguen a modificarlas (al alza o a la baja) en los próximos ejercicios, lo que se realizaría, en su caso, de forma prospectiva.

2.4 Informazioa alderatzea

Egungo merkataritza-legeriarekin bat, 2018. urteko kontuak aurreko ekitaldikoarekin alderatuz aurkezten dira.

2.4 Comparación de la información

De acuerdo con la actual legislación mercantil, las cuentas anuales del año 2018, se presentan de forma comparativa con las del ejercicio anterior.

2.5 Partidak elkartzea

Balantzea, galeren eta irabazien kontua eta ondare garbiaren aldaketa-egoera hobe ulertzeko, egoerak multzokatuak aurkezten dira eta eskatzen diren analisiak dagozkien oharretan daude.

2.5 Agrupación de partidas

A efectos de facilitar la comprensión del balance, de la cuenta de pérdidas y ganancias, y del estado de cambios en el patrimonio neto, estos estados se presentan de forma agrupada, recogiéndose los análisis requeridos en las notas correspondientes.

2.6 Kontabilitate-irizpideak aldatzea

2018ko ekitaldian ez da 2017ko ekitaldiaren urteko kontuetan kontabilitate-irizpideen ziozko egokitzerik egin.

2.6 Cambios en criterios contables

No se han realizado en el periodo 2018 ajustes a las cuentas anuales del ejercicio 2017 por cambios en criterios contables.

2.7 Akatsak zuzentzea

Atxikitako urteko kontuen prestaketan ez da akats esanguratsurik antzeman, zeinek aurreko ekitaldiko urteko kontuetan azaldutako zenbatekoen aldaketa eragin duen.

2.7 Correcciones de errores

En la elaboración de las cuentas anuales adjuntas no se ha detectado ningún error significativo que haya supuesto la reexpresión de los importes incluidos en las cuentas anuales del ejercicio anterior.

## 3. oharra.- Emaitzen aplikazioa

2018ko emaitzen banaketa-proposamena, Akziodunen Batzar Nagusiari aurkeztuko zaiona, “Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboen” kontuari ekitaldiko galerak aplikatzean datza.

Akziodunen Batzar Nagusia 2018ko maiatzaren 9an egin zen eta 2017. ekitaldiko galerak (77.048 euro) “Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboen” kontuari aplikatzea onartu zuen.

## Nota 3.- Aplicación de resultados

La propuesta de distribución del resultado de 2018, a presentar a la Junta General de Accionistas, consiste en aplicar las pérdidas del ejercicio a la cuenta “Resultados negativos de ejercicios anteriores”.

La Junta General de Accionistas celebrada el 9 de mayo de 2018, aprobó la aplicación de las pérdidas del ejercicio 2017 que ascendieron a 77.048 euros a la cuenta “Resultados negativos de ejercicios anteriores”.

## 4. oharra.- Erregistro eta balorazio arauak

4.1 Ibilgetu ukiezina

Aktibo ukiezinak, hasieran, eroste-kostuaren edo produkzio-kostuaren bidez onartzen dira eta, ondoren, bere kostura baloratzen dira, bidezkoa bada, amortizazio metatua edota izandako kaltearengatik galerak kenduta. Aktiboak bizi erabilgarriaren arabera amortizatzen dira.

Aplikazio informatikoak erabiltzeko eskubide edo jabetzarengatik ordaindu diren zenbatekoak eroste-kostuaren arabera baloratzen dira eta 5 urtetan linealki amortizatzen dira.

Programa informatikoen mantentze-lanekin zerikusia duten gastuak gertatzen direnean onartzen dira gastu bezala.

## Nota 4.- Normas de registro y valoración

4.1 Inmovilizado intangible

Los activos intangibles se reconocen inicialmente por su coste de adquisición o costo de producción y, posteriormente, se valoran a su coste menos, según proceda, su correspondiente amortización acumulada y/o las pérdidas por deterioro que hayan experimentado. Dichos activos se amortizan en función de su vida útil.

Los importes satisfechos por la propiedad o derecho de uso de las aplicaciones informáticas se valoran por su coste de adquisición y se amortizan de forma lineal en 5 años.

Los gastos relacionados con el mantenimiento de programas informáticos se reconocen como gasto cuando se incurre en ellos.

4.2 Ibilgetu materiala

"Ibilgetu materialaren" elementuak, hasieran, eroste-prezioaren, produkzio-kostuaren edo arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira eta, ondoren, dagokien amortizazio metatuarekin eta izandako kalteengatik galerekin gutxitzen dira.

Ibilgetu materia osatzen duten elementuak kontserbatu, mantendu eta konpontzeko aldizkako gastuak sortzen diren ekitaldiko galeren eta irabazien kontuari egozten zaizkio. Ondasunen bizi erabilgarria luzatzera edo gaitasuna ala eraginkortasuna gehitzera bideratuta dauden hobekuntza-zenbatekoak, berriz, horien kostu handiago bezala erregistratzen dira eta ordezkatu edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira.

Kalkulatu diren bizi erabilgarriak ondorengoak dira:

4.2 Inmovilizado material

Los elementos del "Inmovilizado material" se valoran inicialmente por su precio de adquisición, coste de producción o valor razonable y posteriormente se minoran con la correspondiente amortización acumulada y las pérdidas por deterioro que se hayan experimentado.

Los gastos periódicos de conservación, mantenimiento y reparación de los diferentes elementos que componen el inmovilizado material se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que se incurren. Por el contrario, los importes invertidos en mejoras que contribuyen a aumentar la capacidad o eficiencia o a alargar la vida útil de dichos bienes se registran como mayor coste de los mismos con el consiguiente retiro contable de los elementos sustituidos o renovados.

Las vidas útiles estimadas son:

| | Urte kopurua/ Años | Ehuneko baliokidea/ Porcentaje equivalente |
|---|---|---|
| Eraikuntzak/ Construcciones | 20 | 5% |
| Instalazio teknikoak eta makineria/ Instalaciones técnicas y maquinaria | 5 | 20% |
| Lanabesak/ Utillaje | 5 | 20% |
| Beste instalazio batzuk/ Otras instalaciones | 5 | 20% |
| Higigarriak/ Mobiliario | 6,7 | 15% |
| Informazio prozesuetarako ekipoak/ Equipos para proceso de información | 4 | 25% |
| Bestelako ibilgetu materiala/ Otro inmovilizado material | 6,7 | 15% |

Enpresak dituen ibilgetuaren aktiboek ez dute merkataritza-etekina sortzea helburu, gizarte-zerbitzua eskaintzea eta, bide batez, Nerbioiko Ezkerraldeko garapen ekonomikoan laguntzea baizik. Beraz, esku-diruaren fluxurik sortzen ez duten aktiboak dira. EHA/733/2010 Aginduak, martxoaren 25ekoak, xedatutakoaren ondorioz eta hori aplikatuz, kontabilitate-araudi orokorrean

Los activos de inmovilizado de los que dispone la empresa no tienen como fin generar un rendimiento comercial sino mas bien ofrecer un servicio de carácter social encaminado a contribuir al desarrollo económico de la Margen Izquierda del Nervión y por tanto se trata de activos no generadores de flujos de efectivo. Como consecuencia y en aplicación a lo establecido en

xedatutakoaren aldean, aktibo horietan balioa kaltetu egiten da, Sozietaterako aktibo horien erabilgarritasuna murrizten denean. Gutxienez ekitaldi bakoitza ixten denean, Sozietateak kaltetzeko arrastorik ba al dagoen ebaluatzen du. Hala bada, aktiboaren balioa doitzen da.

la Orden EHA/733/2010, de 25 de marzo, para estos activos y a diferencia de lo establecido en la normativa contable general, se considera que existe un deterioro de valor cuando existe una disminución en la utilidad que proporciona dicho activo a la Sociedad. Al menos al cierre de cada ejercicio la Sociedad evalúa si existe algún indicio de deterioro para en su caso ajustar el valor del activo.

4.3 Errentamendu operatiboak

Errentamendu operatiboaren kontratuen bidez (hau da, ondasunak dituen arrisku eta abantaila guztiak errentatzaileak dituenean) hirugarrenei errentatu zaizkien aktiboak horien izaerarekin bat aurkezten dira eta ibilgetu material nahiz ez-materialaren ataletan garatzen diren kontabilitatearen printzipioak dira aplikagarriak. Errentamendu operatiboen ondorioz lortzen diren diru-sarrerak galeren eta irabazien kontuan erregistratzen dira, sortzen direnean.

Errentamendu horietarako zehaztutako prezioak eta baldintzak politikoak dira, lortu nahi den gizarte-helburuaren arabera finkatutakoak eta ez merkataritza-xedeari jarraiki.

4.3 Arrendamientos operativos

Los activos arrendados a terceros bajo contratos de arrendamiento operativo, es decir cuando sustancialmente todos los riesgos y ventajas que recaen sobre el bien permanecen en el arrendador, se presentan de acuerdo a la naturaleza de los mismos resultando de aplicación los principios contables que se desarrollan en los apartados de inmovilizado material e inmaterial. Los ingresos derivados de los arrendamientos operativos se registran en la cuenta de pérdidas y ganancias cuando se devengan.

Los precios y condiciones establecidos para estos arrendamientos tienen un carácter político, fijado por el fin social que se persigue y no comercial.

4.4 Finantza tresnak

4.4.1 Aktibo finantzarioak

Hasieran, entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak erantsi ondoren.

Aktibo finantzarioak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

a) Maileguak eta partidak kobratzeke: enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak saltzean edo zerbitzuak eskaintzean sortutako aktibo finantzarioak dira, baita merkataritza-jatorria ez izan arren, ondare-tresnak eta deribatuak ez direnak ere, kobratzeko orduan, zenbatekoa finkoa eta zehatz daitekeena bada eta merkatu aktiboan negoziatzen ez badira.

4.4 Instrumentos financieros

4.4.1 Activos financieros

Se registran inicialmente al valor razonable de la contraprestación entregada más los costes de la transacción que sean directamente atribuibles.

Los activos financieros se clasifican en las siguientes categorías:

a) Préstamos y partidas a cobrar: activos financieros originados en la venta de bienes o en la prestación de servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o los que no teniendo un origen comercial, no son instrumentos de patrimonio ni derivados y cuyos cobros son de cuantía fija o determinable y no se negocian en un mercado activo.

Ekitaldia ixten denean gutxienez, balioa kaltetzeagatik beharrezkoak diren balorazio-zuzenketak egiten dira, zorduntzen diren zenbateko guztiak ez direla kobratuko objektibotasunez jakina bada.

Al menos al cierre del ejercicio, se efectúan las correcciones valorativas necesarias por deterioro de valor si existe evidencia objetiva de que no se cobrarán todos los importes que se adeudan.

Aktibo finantzarioei balantzean baja ematen zaie, funtsean atxikitako arrisku eta onura guztiak aktiboaren jabetzari pasatzen zaizkionean. Kobratzeke dauden kontuen kasuan, hori, orokorrean, kaudimenik ezaren edo atzerapenaren arriskuak transmititzen direnean gertatzen da.

Los activos financieros se dan de baja en el balance cuando se traspasan sustancialmente todos los riesgos y beneficios inherentes a la propiedad del activo. En el caso concreto de cuentas a cobrar se entiende que este hecho se produce en general si se han transmitido los riesgos de insolvencia y de mora.

b) Esku-dirua eta bestelako aktibo likido baliokideak: kaxan eta kontu korronteetan dagoen esku-dirua, ageriko banku-gordailuak eta beste tresna batzuk oso likidoak, hiru hilabeteko edo hortik beherako epemugarekin eta balioa aldatzeko arrisku urriarekin, sartzen dira.

b) Efectivo y otros activos líquidos equivalentes incluye el efectivo en caja y cuentas corrientes, depósitos bancarios a la vista y otros instrumentos altamente líquidos con vencimientos iguales o inferiores a tres meses y con un riesgo insignificante de cambio de valor.

4.4.2 Pasibo finantzarioak

4.4.2 Pasivos financieros

Pasibo finantzarioak hitzartutako kontratu-akordioen edukiaren arabera sailkatzen dira, funts ekonomikoa kontuan hartuta.

Los pasivos financieros se clasifican conforme al contenido de los acuerdos contractuales pactados y teniendo en cuenta el fondo económico.

Zehatz-mehatz esanda, pasibo finantzarioak dira enpresaren trafiko-eragiketak direla-eta, ondasunak eta zerbitzuak erostearen ondorioz, Sozietateak ordaindu beharreko zordunketak eta partidak. Halaber, merkataritza-helbururik izan gabe, tresna finantzario deribatutzat ezin daitezkeenak jo sartzen dira.

En concreto, son pasivos financieros aquellos débitos y partidas a pagar que tiene la Sociedad y que se han originado en la compra de bienes y servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o también aquellos que sin tener un origen comercial, no pueden ser considerados como instrumentos financieros derivados.

Ordaindu beharreko zordunketak eta partidak:

Débitos y partidas a pagar:

Merkataritza-hartzekodunek berariaz ez dituzte interesak sortzen eta balio nominalaren arabera erregistratzen dira.

Los acreedores comerciales no devengan explícitamente intereses y se registran a su valor nominal.

Pasibo finantzarioen baja:

Baja de pasivos financieros:

Sozietateak pasibo finantzarioei baja ematen die, sortu dituzten betebeharrak iraungitzen direnean.

La Sociedad da de baja los pasivos financieros cuando se extinguen las obligaciones que los han generado.

Arruntaren eta ez-arruntaren artean zorrak sailkatzea:

Atxikitako balantzean zorrak epemugen arabera sailkatzen dira, hau da, zor arruntak dira hamabi hilabeteko epemuga edo lehenagokoa dutenak eta zor ez-arruntak denboraldi horretatik gorako epemuga adierazten dutenak.

Clasificación de deudas entre corriente y no corriente:

En el balance adjunto, las deudas se clasifican en función de sus vencimientos, es decir, como deudas corrientes aquéllas con vencimiento igual o anterior a doce meses y como deudas no corrientes las de vencimiento posterior a dicho período.

4.4.3 Ondare tresnak

Ondare garbia:

Kapital-tresnak eta ondarearen beste batzuk, Sozietateak igorri dituenak, ondare garbian jasotako zenbatekoaren arabera erregistratzen dira, zuzeneko igorpen-kostuez garbiak eta erreserba txikiago bezala erregistratzen dira.

4.4.3 Instrumentos de patrimonio

Patrimonio neto:

Los instrumentos de capital y otros de patrimonio emitidos por la Sociedad se registran por el importe recibido en el patrimonio neto, neto de costes directos de emisión, que se registran como menores reservas.

4.5 Irabazien gaineko zerga

Izaera ekonomikoa kontuan hartuta, Sozietateak sozietateen gaineko zerga aurkezten du zerga-oinarri negatiboarekin. Etorkizunean zerga-irabaziak izatea aurrez ikusia ez dagoenez, orekatzeke dauden zerga-oinarri negatiboaren ondorioz zerga geroratuengatik eta zerga-kenkari aplikagarriengatik aktiboak ez dira erregistratzen.

4.5 Impuesto sobre beneficios

Dada su naturaleza económica, la Sociedad presenta su impuesto sobre sociedades con base imponible negativa. En la medida en que no se prevé disponer de ganancias fiscales futuras, no se registran activos por impuestos diferidos como consecuencia de bases imponibles negativas a compensar ni por deducciones fiscales aplicables.

4.6 Sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak sortze-irizpidearen arabera egozten dira, hau da, ondasunen eta zerbitzuen egiazko korrontea sortzen denean, alde batera utzi horien ondorioz korronte monetarioa edo finantzarioa noiz gertatzen den.

Funtzio publikoa betetzeko ordezkaritza-instrumentua denez, Sozietateak ez ditu zerbitzuak jasanarazten, Ilgner eraikinaren barruan higiezinak errentatzen dituenean izan ezik.

4.6 Ingresos y gastos

Los ingresos y gastos se imputan en función del criterio de devengo, es decir, cuando se produce la corriente real de bienes y servicios que los mismos representan, con independencia del momento en que se produzca la corriente monetaria o financiera derivada de ellos.

La Sociedad, dado su caracter instrumental como mandataria para cubrir una función pública, en general, no repercute los servicios que presta salvo en el arrendamiento de inmuebles dentro del edificio Ilgner.

4.7 Hornidurak eta kontingentziak

Urteko kontuek hornidura guztiak jasotzen dituzte, betebeharrari erantzuteko probabilitatea kontrakoarena baino handiagoa denean.

Konpromiso finantzarioak, abalak eta bermeak nahiz beste pasibo kontingente batzuk ez dira balantzean onartzen. Horien berri txostenaren oharretan ematen da.

4.8 Langileen gastuak eta pentsioengatiko konpromisoak

Langileen gastuetan une bakoitzean sortzen diren gizartearen betebehar eta hartzeko guztiak, derrigorrezkoak eta borondatezkoak, sartzen dira. Paga estrengatik, oporrengatik edo hartzeko aldakorrengatik eta horiekin zerikusia duten gastuengatik betebeharrak onartzen dira.

4.9 Jasotako diru-laguntzak

Itzuli beharreko diru-laguntzak pasibo bezala erregistratzen dira itzuli beharrekoak ez direla izan arte.

Xede horiez, diru-laguntza ez da itzuli beharko, diru-laguntza emateko banan-banako hitzarmena dagoenean, emateko baldintza guztiak bete direnean eta kobratzeko arrazoizko zalantzarik ez dagoenean.

Itzuli behar ez diren diru-laguntzak, ibilgetu materiala erosteko ematen direnak, ondare garbiari zuzenean egotzita erregistratzen dira eta ekitaldiko emaitzari aktiboen amortizazioaren proportzioan edo, hala badagokio, besterentzen direnean, kaltearengatik balorazio-zuzenketa egiten denean edo balantzean baja ematen zaienean transferitzen zaizkio.

Bestalde, gastu bereziekin zerikusia duten diru-laguntzak itzuli behar ez badira, galeren eta

4.7 Provisiones y contingencias

Las cuentas anuales recogen todas las provisiones con respecto a las cuales se estima que la probabilidad de que se tenga que atender la obligación es mayor que de lo contrario.

Los compromisos financieros, avales y garantías y otros pasivos contingentes no se reconocen en el balance, se informa sobre los mismos en las notas de la memoria.

4.8 Gastos de personal y compromisos por pensiones

Los gastos de personal incluyen todos los haberes y las obligaciones de orden social obligatorias o voluntarias devengadas en cada momento, reconociendo las obligaciones por pagas extras, vacaciones o haberes variables y sus gastos asociados.

4.9 Subvenciones recibidas

Las subvenciones que tengan carácter de reintegrables se registran como pasivos hasta cumplir las condiciones para considerarse no reintegrables.

A estos efectos, una subvención se considera no reintegrable cuando existe un acuerdo individualizado de concesión de la subvención, se han cumplido todas las condiciones establecidas para su concesión y no existen dudas razonables de que se cobrará.

Las subvenciones no reintegrables recibidas para financiar la adquisición de inmovilizado material se registran imputándose directamente al patrimonio neto y se transfieren al resultado del ejercicio en proporción a la amortización de los correspondientes activos o, en su caso, cuando se produzca su enajenación, corrección valorativa por deterioro o baja en balance.

Por su parte, las subvenciones no reintegrables relacionadas con gastos específicos se reconocen en la cuenta de pérdidas y ganancias en el mismo

irabazien kontuan onartzen dira gastuak sortzen diren ekitaldi berean.

Ekitaldiko ustiapen-galerak orekatzeko, bazkideek urtero egindako transferentziak diru-sarrera bezala erregistratzen dira ekitaldiko galeren era irabazien kontuan.

ejercicio en que se devengan los gastos relacionados.

Las transferencias recibidas anualmente de los socios para compensar las pérdidas de explotación del ejercicio se registran como ingresos en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio.

4.10 Lotura duten aldeen arteko transakzioak

2018. ekitaldiko urteko kontuak prestatzeko orduan, lotura duten erakundetzat jo dira erakunde akziodunak, elkarren artean sozietatearen kapitalaren %100 dutenak, eta bazkideei kontrol esangarria egiteagatik lotura duten gainerako enpresak eta erakundeak.

Lotura duten aldeen arteko transakzioak, oro har, hasieran arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira. Hitzartutako prezioa eta arrazoizko balioa desberdinak direnean, diferentzia eragiketaren errealitate ekonomikoari erreparatuz erregistratzen da. Ondorengo balorazioa dagozkion arauetan aurrez ikusitakoarekin bat egiten da. Modu osagarrian, transferentzia-prezioak behar bezala jasanak daude, beraz, Sozietateko administratzaileen iritziz, alderdi horrengatik etorkizunean pasibo garrantzitsuak sortzeko ez dago arrisku esangarririk.

4.10 Transacciones entre partes vinculadas

En la preparación de las cuentas anuales del ejercicio 2018 se han considerado como entidades vinculadas a las entidades accionistas que ostentan, entre ellas, el 100% del Capital Social y resto de empresas o entidades vinculadas por razón de control significativo a los socios.

Las transacciones entre partes vinculadas se valoran, en general, inicialmente por su valor razonable. Cuando el precio acordado difiere de su valor razonable, la diferencia se registra atendiendo a la realidad económica de la operación. La valoración posterior se realiza conforme con lo previsto en las correspondientes normas. Adicionalmente, los precios de transferencia se encuentran adecuadamente soportados por lo que los Administradores de la Sociedad consideran que no existen riesgos significativos por este aspecto de los que puedan derivarse pasivos de consideración en el futuro.

4.11 Iraiztearen ondoriozko kalte-ordainak

Indarrean dauden legeen arabera, Sozietatea behartuta dago, zenbait baldintzapean, iraizten dituen langileei kalte-ordainak ordaintzera. Horrenbestez, arrazoizko kuantifikazioa izan dezaketen iraiztegatiko kalte-ordainak gastu gisa erregistratzen dira lanetik iraiztea erabakitzen den ekitaldian. Atxikita doazen urteko kontuetan ez da hornidurarik erregistratu kontzeptu horren gainean, ez baitago izaera horretako egoeretarako aurreikuspenik.

4.11 Indemnizaciones por despido

De acuerdo con la legislación vigente, la Sociedad está obligada al pago de indemnizaciones a aquellos empleados con los que, bajo determinadas condiciones, rescinda sus relaciones laborales. Por tanto, las indemnizaciones por despido susceptibles de cuantificación razonable se registran como gasto en el ejercicio en el que se adopta la decisión del despido. En las cuentas anuales adjuntas no se ha registrado provisión alguna por este concepto, ya que no están previstas situaciones de esta naturaleza.

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 13787523 C



4.12 Aktibo eta pasiboen sailkapena, korrontea eta ez-korrontea

Atxikita doan balantzean, saldoak bi multzotan sailkatzen dira: korronteak eta ez-korronteak. Korronteak dira Sozietateak ustiapen-ziklo arruntean (urte bat) saldu, kontsumitu, ordaindu edota burutzea espero dituen saldoak. Sailkapen horren barruan ez daudenak ez-korrontetzat jotzen dira.

4.12 Clasificación de activos y pasivos entre corriente y no corriente

En el balance adjunto, los saldos se clasifican en no corrientes y corrientes. Los corrientes comprenden aquellos saldos que la Sociedad espera vender, consumir, desembolsar o realizar en el transcurso del ciclo normal de explotación (un año). Aquellos otros que no correspondan con esta clasificación se consideran no corrientes.

## 5. oharra.- Ibilgetu ukiezina

2018. eta 2017. ekitaldietan ibilgetu ukiezinaren xehetasun eta mugimendua ondoren azaltzen dira:

## Nota 5.- Inmovilizado intangible

El detalle y movimiento del inmovilizado intangible en los ejercicios 2018 y 2017 se muestra a continuación:

| | 18.01.01<br>01.01.18 | Eransketak<br>Adiciones | Beherakadak<br>Bajas | 18.12.31<br>31.12.18 |
|---|---|---|---|---|
| Kostua / Coste | | | | |
| Informatikako aplikazioak<br>Aplicaciones informáticas | 37.440 | --- | --- | 37.440 |
| Kostuak guztira / Total coste | 37.440 | --- | --- | 37.440 |

| | 18.01.01<br>01.01.18 | Eransketak<br>Adiciones | Beherakadak<br>Bajas | 18.12.31<br>31.12.18 |
|---|---|---|---|---|
| Metatutako amortizazioa<br>Amortización acumulada | | | | |
| Informatikako aplikazioak<br>Aplicaciones informáticas | 37.440 | --- | --- | 37.440 |
| Metatutako amortizazio guztira<br>Total amortización acumulada | 37.440 | --- | --- | 37.440 |
| Balio garbia / Valor Neto | --- | --- | --- | --- |

| | 17.01.01<br>01.01.17 | Eransketak<br>Adiciones | Beherakadak<br>Bajas | 17.12.31<br>31.12.17 |
|---|---|---|---|---|
| Kostua / Coste | | | | |
| Informatikako aplikazioak<br>Aplicaciones informáticas | 37.440 | --- | --- | 37.440 |
| Kostuak guztira / Total coste | 37.440 | --- | --- | 37.440 |

| | 17.01.01<br>01.01.17 | Eransketak<br>Adiciones | Beherakadak<br>Bajas | 17.12.31<br>31.12.17 |
|---|---|---|---|---|
| Metatutako amortizazioa<br>Amortización acumulada | | | | |
| Informatikako aplikazioak<br>Aplicaciones informáticas | 37.440 | --- | --- | 37.440 |
| Metatutako amortizazio guztira<br>Total amortización acumulada | 37.440 | --- | --- | 37.440 |
| Balio garbia / Valor Neto | --- | --- | --- | --- |

2018ko abenduaren 31n erabat amortizatutako aplikazio informatikoak zeuden,oraindik erabiltzen ari ziren eta 37.440 €-ko kostua zuten (2017ko abenduaren 31n 37.440 €-ko kostua zuten).

Al 31 de diciembre de 2018 existían aplicaciones informáticas totalmente amortizadas, que se encontraban en uso, con un coste de 37.440 € euros (37.440 € euros al 31 de diciembre de 2017).

## 6. oharra.- Ibilgetu materiala

## Nota 6.- Inmovilizado material

2018. ekitaldian ibilgetu materialaren xehetasuna eta mugimendua hurrengoa izan da

El detalle y movimiento del inmovilizado material en el ejercicio 2018, ha sido el siguiente:

| | 18.01.01<br>01.01.18 | Eransketak<br>Adiciones | Beherakadak<br>Bajas | 18.12.31<br>31.12.18 |
|---|---|---|---|---|
| Kostua<br>Coste | | | | |
| Lurrak eta Eraikuntzak<br>Terrenos y Construcciones | 7.240.799 | --- | --- | 7.240.799 |
| Instalaz. Teknikoak eta makineria<br>Instalac. Técnicas y maquinaria | 367.254 | --- | --- | 367.254 |
| Bestelako instalaz. lanab. eta higiez.<br>Otras instalac. utill. y mobiliario | 737.550 | 28.881 | --- | 766.431 |
| Informazioa prozesatzeko ekipoak<br>Equipos proceso de información | 24.597 | --- | --- | 24.597 |
| Beste ibilgetu material batzuk<br>Otro inmovilizado material | 70.497 | --- | --- | 70.497 |
| Kostua guztira<br>Total Coste | 8.440.697 | 28.881 | --- | 8.469.578 |

| | 18.01.01<br>01.01.18 | Eransketak<br>Adiciones | Beherakadak<br>Bajas | 18.12.31<br>31.12.18 |
|---|---|---|---|---|
| Metatutako amortizazioa<br>Amortización acumulada | | | | |
| Lurrak eta Eraikuntzak<br>Terrenos y Construcciones | 4.949.930 | 307.624 | --- | 5.257.554 |
| Instalaz. teknikoak eta makineria<br>Instalac. técnicas y maquinaria | 360.033 | 4.165 | --- | 364.198 |
| Bestelako instalaz. lanab. eta higiez.<br>Otras instalac. utill. y mobiliario. | 705.330 | 6.126 | --- | 711.456 |
| Informazioa prozesatzeko ekipoak<br>Equipos proceso de información | 18.858 | --- | --- | 18.858 |
| Beste ibilgetu material batzuk<br>Otro inmovilizado material | 70.497 | --- | --- | 70.497 |
| Amortizazioa guztira<br>Total Amortización | 6.104.648 | 317.915 | --- | 6.422.563 |
| Balio garbia / Valor Neto | 2.336.049 | (289.034) | --- | 2.047.015 |

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 13787526 C



2017. ekitaldian ibilgetu materialaren xehetasuna eta mugimendua hurrengoa izan da:

El detalle y movimiento del inmovilizado material en el ejercicio 2017, ha sido el siguiente:

| | 17.01.01<br>01.01.17 | Eransketak<br>Adiciones | Beherakadak<br>Bajas | 17.12.31<br>31.12.17 |
|---|---|---|---|---|
| Kostua<br>Coste | | | | |
| Lurrak eta Eraikuntzak<br>Terrenos y Construcciones | 7.149.633 | 91.166 | --- | 7.240.799 |
| Instalaz. Teknikoak eta makineria<br>Instalac. Técnicas y maquinaria | 367.254 | --- | --- | 367.254 |
| Bestelako instalaz. lanab. eta higiez.<br>Otras instalac. utill. y mobiliario | 737.550 | --- | --- | 737.550 |
| Informazioa prozesatzeko ekipoak<br>Equipos proceso de información | 18.858 | 5.739 | --- | 24.597 |
| Beste ibilgetu material batzuk<br>Otro inmovilizado material | 70.497 | --- | --- | 70.497 |
| Kostua guztira<br>Total Coste | 8.343.792 | 96.905 | --- | 8.440.697 |

| | 17.01.01<br>01.01.17 | Eransketak<br>Adiciones | Beherakadak<br>Bajas | 17.12.31<br>31.12.17 |
|---|---|---|---|---|
| Metatutako amortizazioa<br>Amortización acumulada | | | | |
| Lurrak eta Eraikuntzak<br>Terrenos y Construcciones | 4.646.942 | 302.988 | --- | 4.949.930 |
| Instalaz. teknikoak eta makineria<br>Instalac. técnicas y maquinaria | 358.419 | 1.614 | --- | 360.033 |
| Bestelako instalaz. lanab. eta higiez.<br>Otras instalac. utill. y mobiliario. | 699.289 | 6.041 | --- | 705.330 |
| Informazioa prozesatzeko ekipoak<br>Equipos proceso de información | 18.858 | --- | --- | 18.858 |
| Beste ibilgetu material batzuk<br>Otro inmovilizado material | 70.497 | --- | --- | 70.497 |
| Amortizazioa guztira<br>Total Amortización | 5.794.005 | 310.643 | --- | 6.104.648 |
| Balio garbia / Valor Neto | 2.549.787 | (213.738) | --- | 2.336.049 |

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n erabat amortizatutako ondasunak zeuden eta oraindik erabiltzen ari ziren. Kostu-balioa 1.187.670 eurokoa zen, hurrenez hurren.

Al 31 de diciembre de 2018 y 2017, existían bienes totalmente amortizados, que se encontraban en uso con un valor de coste de 1.187.670 euros.

ILGNER eraikina, sozietatearen jabetzakoa, kokatzen den finka 2000. urtean erosi zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko erakundeen lagapenaren bitartez, ordainik izan gabe eta kontabilitatearen ikuspegitik salmenta-balioa (1.051.205 euro) erregistratu zen. Aktiboaren ordaina "jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak" epigrafean dago (13. oharra). Finka guztiak (lursailak eta eraikuntzek) Bizkaiko Foru Aldundiaren aldeko itzultze-eskubidea du, sozietatea iraungitzen bada. Dena den, ez da iraungitzat joko fusioa, lagapen orokorra edo transmisioa, beste erakunde horrek helburu berarekin jarraitzen badu. Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren adostasunez aske besteren edo karga dezake.

La finca donde se ubica el edificio ILGNER propiedad de la Sociedad, fue adquirida en el año 2000 mediante una cesión de entidades dependientes de la Diputación Foral de Bizkaia sin contraprestación y se registró contablemente por su valor venal que ascendía a 1.051.205 euros. La contrapartida de dicho activo se recoge en el epígrafe "Subvenciones, donaciones y legados recibidos" (Nota 13). Esta finca en su conjunto, terreno y construcciones, se encuentra afecta a un derecho de reversión a favor de la Diputación Foral de Bizkaia en el supuesto de que la Sociedad quede extinguida, no considerando como extinción la fusión, cesión global o transmisión a otra entidad que continúe con la misma finalidad. En todo caso podrá procederse a la libre enajenación o gravamen con el consentimiento de la Diputación Foral de Bizkaia.

2018ko ekitaldian egindako inbertsioak zenbait LED luminaria jartzeari dagozkio.

Las inversiones realizadas en el ejercicio 2018 corresponden a la instalación de diversas luminarias LED.

2017ko ekitaldian egindako inbertsioak euri-uren biltegiaren birmoldaketari dagozkio batez ere.

Las inversiones realizadas en el ejercicio 2017 correspondían, principalmente, a la remodelación del depósito pluvial.

Sozietateak hainbat aseguru-poliza ditu kontratatuta ibilgetu materialaren elementuek aurre egin behar dieten arriskuak estaltzeko. Poliza horien estaldura nahikotzat jotzen da.

La Sociedad tiene contratadas varias pólizas de seguro para cubrir los riesgos a que están sujetos los elementos del inmovilizado material. La cobertura de estas pólizas se considera suficiente.

Ibilgetu materialaren ondasunek ez dute kargarik ezta zergarik ere.

Los bienes de inmovilizado material se encuentran libres de cargas o gravámenes.

2018ko abenduaren 31n, ez dago ordaindu beharreko zenbatekorik ibilgetuan egindako inbertsioen ondorioz (2017ko abenduaren 31n 6.945 eurokoa zen kontzeptu horretan ordaindu beharrekoa eta atxikitako balantzearen pasibo korrontearen "Epe laburrerako zorrak- Bestelako finantza-pasiboak" izeneko epigrafean dago jasota).

Al 31 de diciembre de 2018, no existe importe pendiente de pago por las inversiones en inmovilizado (6.945 euros al 31 de diciembre de 2017 que figura registrado en el epígrafe "Deudas a corto plazo-Otros pasivos financieros" del pasivo corriente del balance adjunto).

Azalera erabilgarriari erreparatuz, Sozietateak guztira 7.836 metro karratu ditu, erabileraren arabera honako moduan banatuak:

La Sociedad dispone en total de 7.836 metros cuadrados de superficie útil, que se reparten de la siguiente forma en función de su uso:

Foru Seilua
Timbre Foral
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos
N 13787528 C



| | m² | | m² |
|---|---|---|---|
| Moduloak alokatzeko | 2.798 | Destinados al alquiler de módulos | 2.798 |
| Administraziorako | 324 | Destinados a Administración | 324 |
| Erabilera komuna | 4.714 | Uso común | 4.714 |
| | 7.836 | | 7.836 |

## 7. oharra.- Errentamendu operatiboak

Sozietateak ILGNER eraikinean dauden lokalak enpresa berriztatzaileei errentatzen dizkie, sortu berriak badira eta aldez aurretik hautatuak izan badira, jardueraren hasieran suspertzeko. Higiezin horiek alokatzeari esker, 2018. eta 2017. ekitaldietan diru-sarrerak 146.742 euro eta 128.323 eurokoak izan dira, hurrenez hurren.

Kontratuan xedatutako epean jakinarazpena aurkeztu ondoren bertan behera utz daitezkeela kontuan hartuta, 2018/12/31n dauden errentamendu-kontratuen arabera etorkizunean 255.602 euro kobratuko dira eta horietatik 89.456 euro 2019ko ekitaldiari dagozkio (345.442 euro eta 105.787 euro 2017ko abenduaren 31n).

## Nota 7.- Arrendamientos operativos

La Sociedad es arrendadora de locales ubicados en el edificio ILGNER a empresas innovadoras de nueva creación previamente seleccionadas con el fin de estimular a las mismas en el inicio de sus actividades. El alquiler de estos inmuebles ha supuesto unos ingresos en los ejercicios 2018 y 2017 de 146.742 euros y 128.323 euros, respectivamente.

Los cobros futuros por arrendamiento de los contratos existentes al 31/12/2018, teniendo en cuenta que los contratos pueden ser cancelables con la presentación de notificación en el periodo establecido en el mismo; ascienden a 255.602 euros, de los cuales 89.456 euros son del ejercicio 2019 (345.442 euros y 105.787 euros al 31 de diciembre de 2017).

## 8. oharra.- Finantza tresnak

### 8.1 Aktibo finantzarioak

Balorazio-arauetan erregulatutako sailkapenarekin bat, 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n balantzean erregistratutako aktibo finantzarioen xehetasuna kategorien arabera ondorengoa da:

## Nota 8.- Instrumentos financieros

### 8.1 Activos financieros

El detalle por categorías de los activos financieros registrados en el balance al 31 de diciembre de 2018 y 2017, de acuerdo con la clasificación regulada en las normas de valoración, es el siguiente:

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 13787529 C



| Motak / Clases | Epe luzeko finantza aktiboak Activos financieros a largo plazo | | Epe laburreko finantza aktiboak Activos financieros a corto plazo | | Guztira Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kategoriak / Categorías | Kredituak, Eratorriak, beste batzuk Créditos, Derivados, Otros | | Kredituak, Eratorriak, beste batzuk Créditos, Derivados, Otros | | | |
| | 18.12.31 31.12.18 | 17.12.31 31.12.17 | 18.12.31 31.12.18 | 17.12.31 31.12.17 | 18.12.31 31.12.18 | 17.12.31 31.12.17 |
| KOBRATZEKO DAUDEN MAILEGU ETA PARTIDAK – Gainerakoa PRESTAMOS Y PARTIDAS A COBRAR – Resto | 182 | 182 | 3.328 | 3.855 | 3.510 | 4.037 |
| Ondare baliabideak Instrumentos de patrimonio | 182 | 182 | – | – | 182 | 182 |
| Salmentak eta zerbitzuak emateagatiko bezeroak Clientes ventas y prestaciones de servicios | – | – | 3.328 | 3.855 | 3.328 | 3.855 |
| TALDEKO, TALDE ANITZEKO ENPRESAK ETA ELKARTUAK EMPRESAS DEL GRUPO, MULTIGRUPO Y ASOCIADAS | – | – | 110.000 | 11.667 | 110.000 | 11.667 |
| Zordunak Deudores | – | – | 110.000 | 11.667 | 110.000 | 11.667 |
| EPE LABURRERAKO INBERTSIO FINANTZARIOAK INVERSIONES FINANCIERAS TEMPORALES | – | – | – | 2.891 | – | 2.891 |
| ESKU DIRUA ETA BESTELAKO AKTIBO LIKIDO BALIOKIDEAK EFECTIVO Y OTROS ACTIVOS LÍQUIDOS EQUIVALENTES | – | – | 173.269 | 183.350 | 173.269 | 183.350 |
| Diruzaintza / Tesorería | – | – | 173.269 | 183.350 | 173.269 | 183.350 |
| Guztira / Total | 182 | 182 | 286.597 | 201.763 | 286.779 | 201.945 |

Sozietatearen administratzaileen ustez, aurreko koadroan zehaztutako finantza-aktiboek liburuetan duten balioa arrazoizko balioaren baliokide onargarria da.

Los Administradores de la Sociedad consideran que el importe en libros de los activos financieros detallados en el cuadro anterior constituye una aproximación aceptable de su valor razonable.

## 8.2 Pasibo finantzarioak

Balantzean erregistratutako pasibo finantzarioen xehetasuna kategorien arabera hurrengoa da:

## 8.2 Pasivos financieros

El detalle por categorías de los pasivos financieros registrados en el balance es:

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 13787530 C



| Motak / Clases | Epe luzeko finantza pasiboak<br>Pasivos financieros a largo plazo | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kategoriak / Categorías | Zorrak kreditu entitateekin<br>Deudas con entidades de crédito | | Kredituak, Eratorriak, beste batzuk<br>Créditos, Derivados, Otros | | Guztira<br>Total | |
| | 18.12.31<br>31.12.18 | 17.12.31<br>31.12.17 | 18.12.31<br>31.12.18 | 17.12.31<br>31.12.17 | 18.12.31<br>31.12.18 | 17.12.31<br>31.12.17 |
| ZORRAK ETA ORDAINTZEKO PARTIDAK - Gainerakoa<br>DEBITOS Y PARTIDAS A PAGAR - Resto | 90.606 | 103.943 | 38.339 | 30.878 | 128.945 | 134.821 |
| Zorrak kreditu entitateekin<br>Deudas con entidades de crédito | 90.606 | 103.943 | – | – | 90.606 | 103.943 |
| Bestelako pasibo finantzarioak (Alokairuengatiko bermeak)<br>Otros pasivos financieros (Fianzas por alquileres) | – | – | 38.339 | 30.878 | 38.339 | 30.878 |
| Guztira / Total | 90.606 | 103.943 | 38.339 | 30.878 | 128.945 | 134.821 |

| Motak / Clases | Epe laburreko finantza pasiboak<br>Pasivos financieros a corto plazo | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kategoriak / Categorías | Zorrak kreditu entitateekin<br>Deudas con entidades de crédito | | Kredituak, Eratorriak, beste batzuk<br>Créditos, Derivados, Otros | | Guztira<br>Total | |
| | 18.12.31<br>31.12.18 | 17.12.31<br>31.12.17 | 18.12.31<br>31.12.18 | 17.12.31<br>31.12.17 | 18.12.31<br>31.12.18 | 17.12.31<br>31.12.17 |
| ZORRAK ETA ORDAINTZEKO PARTIDAK – Taldea<br>DEBITOS Y PARTIDAS A PAGAR – Grupo | – | – | 128.235 | 3.892 | 128.235 | 3.892 |
| Taldeko sozietateekiko zorrak<br>Deudas con sociedades del grupo | – | – | 128.235 | 3.892 | 128.235 | 3.892 |
| ZORRAK ETA ORDAINTZEKO PARTIDAK - Gainerakoa<br>DEBITOS Y PARTIDAS A PAGAR - Resto | 40.518 | 28.228 | 186.734 | 204.477 | 227.252 | 232.705 |
| Zorrak kreditu entitateekin<br>Deudas con entidades de crédito | 40.518 | 28.228 | – | – | 40.518 | 28.228 |
| Bestelako pasibo finantzarioak<br>Otros pasivos financieros | – | – | 93.515 | 109.146 | 93.515 | 109.146 |
| Langilea<br>Personal | – | – | 25.909 | 13.748 | 25.909 | 13.748 |
| Hainbat hartzekodun<br>Acreedores varios | – | – | 67.310 | 81.583 | 67.310 | 81.583 |
| Guztira / Total | 40.518 | 28.228 | 314.969 | 208.369 | 355.487 | 236.597 |

Sozietatearen administratzaileen ustez, “Zorrek eta ordaintzeko partidek” liburuetan duten balioa arrazoizko balioaren hurbilekoa da.

Los Administradores de la Sociedad consideran que el importe en libros de los “Débitos y partidas a pagar” se aproxima a su valor razonable.

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 13787531 C



2018ko abenduaren 31n kreditu-erakundeekiko zorrak amortizatzeke dauden saldoei dagozkie. Saldook bi mailegurenak dira, alde batetik, Laboral Kutxak emandako eta 2022.urtean epemuga duen mailegua batenak, eta, bestetik, Banco Santanderrek emandako eta 2021.urtean epemuga duen beste mailegu batenak. Xehetasunak, epemugak eta ezaugarriak ondorengoak dira:

Las deudas con entidades de crédito al 31 de diciembre de 2018 corresponden a los saldos pendientes de amortización de un préstamo con Laboral Kutxa con vencimiento en 2022 y un préstamo con Banco Santander con vencimiento en 2021 y cuyos detalles, vencimientos y características son las siguientes:

| Entitatea / Entidad | Nominala Nominal | G/i T/i | Muga egunengatik ordaintzeko zenbatekoak Importes a pagar por vencimientos | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | Saldo al 31/12/2018 |
| Laboral Kutxa | 200.000 | Euribor 12M + 2,25 | 28.870 | 29.526 | 30.197 | 15.350 | 103.943 |
| Banco Santander | 34.944 | 0% | 11.648 | 11.648 | 3.885 | -- | 27.181 |
| Guztira / Total | 234.944 | | 40.518 | 41.174 | 34.082 | 15.350 | 131.124 |

Lokalen alokairu-kontratuengatik errentariek ordaindu dituzten fidantzak epe luzera erregistratzen dira, epemuga zehatzik ez baitute.

Las fianzas recibidas de los arrendatarios por contratos de alquiler de locales se registran en el largo plazo al no tener un vencimiento definido.

2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian kreditu-erakundeek Sozietateari emandako besteren finantziazioaren ondorioz sortu ziren interesak 2.684 eurokoak izan ziren (3.311 euro 2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian) eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokion eta atxikita doan galera eta irabazien kontuaren "Finantza-gastuak – Hirugarrenekiko zorrengatik" epigrafean erregistratu dira. Interes horiek errregistratzeko interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatu da.

Los intereses devengados durante el ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2018 por la financiación ajena concedida a la Sociedad por entidades de crédito ascendieron a 2.684 euros (3.311 euros durante el ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2017) y figuran registrados en el epígrafe "Gastos financieros – Por deudas con terceros" de la cuenta de pérdidas y ganancias adjunta correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2018 adjunta. Dichos intereses han sido registrados aplicando el método del tipo de interés efectivo.

8.3 Finantza tresnen izaerari eta arrisku mailari buruzko informazioa

8.3 Información sobre naturaleza y nivel de riesgo de los instrumentos financieros

8.3.1 Informazio kualitatiboa

8.3.1 Información cualitativa

Sozietateak interes-tasen aldaketekiko eta kreditu- eta likidezia-arriskuekiko ustiapenaren ondorioz sortzen diren arrisku finantzarioak kudeatzeko mekanismoak zehaztu ditu. Ondoren, Sozietateari

La Sociedad tiene establecidos los mecanismos necesarios para la gestión de los riesgos financieros derivados de la exposición a las variaciones en los tipos de interés, así como a los riesgos de crédito y liquidez. A continuación se

eragiten dizkioten arrisku finantzario nagusiak adierazten dira:

a) Kreditu arriskua:

Sozietateak diruzaintza eta aktibo likido baliokide guztiak kreditu-maila altua duten erakunde finantzarioetan mantentzen ditu. Bestalde, bezeroei kobratu behar zaizkien kontuetako zenbateko guztia ez dago kreditu-aseguruen bitartez bermatuta, eragiketak eskura edo aipatu erakunde finantzarioen bidez kobratzen baitira.

b) Likidezia arriskua:

Likidezia ziurtatu eta jardueraren ondorioz sortzen diren ordaintze-konpromiso guztiei erantzuteko, Sozietateak balantzean dagoen diruzaintza du.

b) Merkatu-arriskua

Sozietateak ez du modu esangarrian arrisku hori, espekulatzeko diruzaintzarik eta pasibo finantzariorik ez baitu.

8.3.2 Informazio kuantitatiboa

Bezeroen eta hornitzaileen kontzentrazio-maila baxua da eta transakzio guztiak eurotan egiten dira, beraz, ez dago aldaketa-motaren arriskurik.

8.4 Funts propioak

2016ko abenduaren 31n sozietatearen kapitala 552.636 akzio nominatibok osatzen zuten. Bakoitzak 6,50 euroko balio nominala zuen eta erabat harpidetuta eta ordainduta zeuden guztiak

2016ko azaroaren 7an Sozietatearen Akziodunen Ezohiko Batzar Unibertsalak sozietatearen kapitala handitzea erabaki zuen, 99.996 euroko zenbatekoan. Horretarako, 15.384 akzio gehiagoren jaulkipena egin zuen, bakoitza 6,50 euroko balio nominalekoa. Akzio horiek guztiak erabat harpidetuta eta ordainduta daude ekitaldiearen itxieran.

indican los principales riesgos financieros que impactan a la Sociedad:

a) Riesgo de crédito:

